

DONOSTIAKO GIZA ESKUBIDEEN 15. ZINEMALDIA MARTXOAREN 31tik APIRILAREN 7ra BITARTEAN IZANGO DA

30 film luzeak, 24 film laburrek eta 6 erakusketek osatzen dute aurtengo programazioa

Clash / Eshtebak (2016) film egiptoarrak, Mohamed Diab-ek zuzenduak, emango dio hasiera, martxoaren 31n, Victoria Eugenia Antzokian, Donostiako Giza Eskubideen 15. Zinemaldiari, hiriko Udalaren Giza Eskubideen Sailak eta Donostia Kulturak antolatutakoari. Kristina Grozeva-n eta Petar Valchanov-en **Un minuto de gloria** (*Slava*, 2016) film bulgariak itxiko du zinemaldia.

Zinemaldiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren –Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren bitartez– eta Eusko Jaurlaritzaren –Bake eta Bizikidetzaren arloaren bitartez– babesa dauka. Gainera, Euskadiko GGKEen Koordinakundea, CEAR, Unicef, Gehitu, Amnesty International, Acnur, SOS Arrazakeria edo FiSahara bezalako entitateen eta gobernuz kanpoko erakundeen laguntza dauka.

HELBURUAK

Giza Eskubideen Zinemaldiak 15. edizioa beteko du aurrean. Guztira 27 herrialdeetako 54 film (30 luze eta 24 labur) proiektatuko dira. Horrez gain, 6 erakusketa antolatu dira. Beti bezala, hainbat jardura paralelok osatzen dute programazioa: filmetako zuzendariekin, protagonistekin eta landuko diren gizartearloko gaietan adituak diren pertsonekin solasaldiak, ikastetxeentzako goizeko zinema saioak...

Azpitarratzekoa da zinemaldiak gero eta agertoki gehiago dituela eta auzoetara ere zabalduta dela kultur etxeetan antolatutako doaneko proiektuekin. Helburua argia da: gizateriaren erronka eta gabezia handiei buruzko ikuspegi kritiko, solidario, aldarrikatzaile eta plurala eskaini eta eragitea.

Hiritarren artean **gogoeta, sentiberatasuna eta eztabaida sustatzea du xede** Zinemaldiak, **giza eskubideen urraketak** salatzea ardatz izanik. Horretarako, zinema eta kulturaren beste hainbat adierazpide erabiltzen ditu.

SARRERAK ETA ABONUAK

Bada **22 euroko** abonua bat Victoria Eugeniako saio guztiak ikusteko. Abonua **martxoaren 24tik, ostirala**, izango dira salgai, Victoria Eugeniako leihatiletan soilik.

Saio bakoitzerako sarrerak egunean bertan jarriko dira salgai, **4,50 euroren** truke. Victoria Eugeniako leihatiletan ez ezik Internet bidez ere erosi ahal izango dira saioetarako sarrerak.

LARGOMETRAJES

18 film luze hartuko dute parte aurten Giza Eskubideen Zinemaldiaren Sail Ofizialean. Mundu osoko tituluak dira, askotariko gaiak jorratzen dituztenak. Urtero bezala, solasaldiak egingo ditugu ikusleekin saio gehienetan, eta horietara, aurkeztutako filmen lantaldeetako kideak, zein instituzio eta gobernuz kanpoko erakundeetako ordezkariak bertaratuko dira besteak beste.

Errepresioa eta zentsura artean

1. **AFTERIMAGE / POWIDOKI** (2016). Polonia. Andrzej Wajda

Emakume oroigarrien oroimenak

2. **AMA, NORA GOAZ?** (2016). Euskadi. Iban Gonzalez (LEHIAKETATIK KANPO) (SOLASALDIA)

Europa, populismotik muturreko eskuinera

3. **BOILING POINT / KIEHUMISPISTE** (2017). Finlandia. Elina Hirvonen (SOLASALDIA)

Tradizioa berritzea

4. **LA CAZADORA DEL ÁGUILA** (*The Eagle Huntress*, 2016). AEB / EEUU. Otto Bell

Arabiar Udaberrien arrastoaren atzetik

5. **CLASH / ESHTEBAK** (2016). Egipto-Frantzia / Egipto-Francia. Mohamed Diab

AEB: abortatzea libre edo abortatzetik libre?

6. **JACKSON** (2016). AEB. Maisie Crow (SOLASALDIA)

Transexualitatea adin txikikoen artean

7. **JUST A NORMAL PERSON / EN VANLIG FUCKING MÄNNISKA** (2015). Suedia. Malin Björkman-Widell (SOLASALDIA)

Hinduismoa, kastak eta tradizioa

8. **LAND OF THE GODS / DEV BHOOMI** (2016). India-Serbia. Goran Paskaljević

Espekto autistaren nahasmendua

9. **LIFE, ANIMATED** (2016). AEB. Roger Ross Williams (SOLASALDIA)

Zergatik eta zertarako egiten dugu lan?

10. **LA MANO INVISIBLE** (2016). Espainia / España. David Macián (SOLASALDIA)

Uruguai, diktadura zibiko-militarra

11. **MIGAS DE PAN** (2016). Uruguai-Espainia. Manane Rodríguez

Korruptzioaren aurkako borroka, erronka bat Bulgariarentzat

12. **UN MINUTO DE GLORIA** (*Slava*, 2016). Bulgaria-Grezia. Kristina Grozeva, Petar Valchanov (LEHIAKETATIK KANPO)

Ezkontza behartuak, Europan ere bai
13. **NOCES / A WEDDING** (2016). Belgika-Frantzia-Luxenburgo-Pakistan. Stephan Streker

26 urte *apartheid* gabe
14. **NOMA** (2016). Hego Afrika. Pablo Pinedo Bóveda

Mexiko, narkotizatua
15. **TEMPESTAD** (2016). Mexikoo. Tatiana Huezo (SOLASALDIA)

Kuba iraultzatik harago
16. **ÚLTIMOS DÍAS EN LA HABANA** (2016). Kuba-Espainia. Fernando Pérez

Neska-mutilak asilo burokraziaren aurrean
17. **THE WAIT** (2016). Danimarka. Emil Langballe

Estraktibismoa eta turismoa "munduaren amaieran"
18. **ZONA FRANCA** (2016). Frantzia-Txile. Georgi Lazarevski

SAIO BEREZIAK

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIAREN SARIA: DEEPA MEHTA

Indarkeria matxista Indian
ANATOMY OF VIOLENCE (2016). Kanada. Deepa Mehta (SOLASALDIA)

CENTRO PENITENCIARIO SAN SEBASTIÁN

Mota honetako kultur ekimenetatik baztertuta dauden kolektiboen eskuragarritasuna hobetzeko aurreikusitako jardueren artean, Giza Eskubideen Zinemaldiak **Bring the Sun Home** (2013) pelikularen emanaldia eta, ondoren, mahai-ingurua antolatu ditu Donostiako Espetxean.

TABAKALERA

AUSTERLITZ (2016). Alemania. Sergei Loznitsa

FILM LABURREN LEHIAKETA

1. **17 años juntos** (2016). Espainia. Javier Fesser
2. **Aquí es posible. Comunicación. S. L.** (2016). Euskadi. Blanca Zaragüeta (LEHIAKETATIK KANPO)
3. **Benditas infancias, 1** (2016). Espainia. Iñaki Elizalde
4. **Beti bezperako koplak**. Euskadi. Ageda Koplak Taldea
5. **Champions** (2016). Alemania. Anastasija Bräuniger
6. **The Chop** (2015). Erresuma Batua. Lewis Rose

7. **The Cut** (2016). Grezia. Evangelia Soumeli
8. **Un état d'urgence** (2016). Alemania-Frantzia. Tarek Roehlinger
9. **The Fourth Kingdom** (2016). Espainia. Adán Aliaga, Àlex Lora
10. **El mundo de Embarka** (2016). Euskadi. Raúl San Román Otegi (LEHIAKETATIK KANPO)
11. **My Life I Don't Want** (2016). Myanmar. Nyal Kyal Say
12. **La niña de la buseta** (2016). Kolonbia-Espainia. Pedro Pío
13. **No Offense** (2016). Belgika. Kris Borghs
14. **Palabras de Caramelo** (2016). Espainia. Juan Antonio Moreno Amador
15. **Sheroes** (2016). India-Espainia. Carlos Caro
16. **Tous les jours** (2016). Frantzia. Philippe Orreindy
17. **Vernon Walks** (2016). Espainia. Santiago Zannou
18. **Watu Wote** (2016). Alemania. Katja Benrath

KULTUR ETXEETAKO ZIKLOA

Egia K. E. / Laguntzailea: Oxfam Intermón
WALLS (2015). Espainia. Pablo Iraburu, Migueltxo Molina

Aiete K. E. / Laguntzailea: Mugen Gainetik
OZPINAREN SINDROMEA (2016). Euskadi. David Aguilar, Pello Gutiérrez

Ernest Lluch K. E. / Laguntzaileak: Malen Etxea / Haurralde Fundazioa
MUJERES INMIGRANTES Y RESISTENCIAS (2016). Euskadi. Jon Manterola

Okendo K. E. / Laguntzailea: Unicef
EL COMIENZO DE LA VIDA (O começo da vida), 2016). Brasil. Estela Renner

Tomasene K. E. / Laguntzailea: FiSahara
FUSILES O PINTADAS. LA LUCHA NOVIOLENTA DEL PUEBLO SAHARAUI (2016).
Espainia. Jordi Oriola

Intxaurrondo K. E. / Laguntzailea: (H)Emen Her(E) Elkarteak
LABURMETRAIAK
Sarearen oihua
Adri
Sandorkaut
Still Alive
Flutter
Rayuela

Lugaritz K. E. / Laguntzailea: Mundubat
LA PAZ INSURRECTA (2016). Euskadi. Unai Aranzadi

Loiola K. E. / Laguntzailea: Filmazpit
FATIMA (2015). Frantzia-Kanada. Philippe Faucon

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIAREN SARIA DEEPA MEHTA

Deepa Mehta zuzendaria ezinbesteko zinegile bilakatu da azken hiru hamarkadetan egin izan dituen filmekin. Indian jaioa, New Delhin filosofia ikasi ondoren Kanadara joan zen bizitzera, eta bertan bizi da hirurogeita hamarreko urteetatik, bere sorlekua eta bertako jendea badira ere bere lan gehienen protagonistak. Bere aurreneko filmetik –**Sam & Me** (1991)– bere azkeneko filmeraino –**Anatomy of Violence** (2016), Indiako taldeko bortxaketen gaira hurbiltzen dena–, mundu osoko zinemaldietan saritu eta proiektatu izan dira bere lanak. Mehta nazioartean da ezaguna bere Trilogia Elementalagatik – **Fire** (1996), **Earth** (1998) eta **Water** (2005)–, Asiako herrialdeko momentu historiko jakin batzuetan gertatutako istorioetara hurbiltzen diren filmak izanik.

Adin desberdinetako emakumeen arteko adiskidetasunaren istorioa **Camilla** (1994), indarkeria matxistaren drama **Heaven on Earth** (2008), Salman Rushdieren nobela klasikoaren egokitzapena **Midnight's Children** (2012) edo kaleko gaizkile taldeei buruzko istorioa **Beeba Boys** (2015) dira, besteak beste, emakume honen ibilbidea osatzen dutenak, kontuan izanik bere filmek beti egin izan diela aurre tradizioei eta estereotipoei modu arriskutsu, ausart eta probokatzailer batean. Bere alderdi artistikoan nahiz pertsonalean era guztietako problematika sozialei etengabe so egiten dien zinegile honek sari ugari lortu izan ditu, besteren artean, Canadian Centre of Diversity-ren Arteetako Bikaintasun Saria edo Ontarioko Ordena. 2013an Order of Canada-ko Ofizial izendatu zuten, herrialdeko sari zibil gailenena, “*gidoigile, zuzendari eta ekoizle iraultzaile*” honek egin izan duen lanagatik.

SARIAK

IKUSLEEN SARIA FILM LUZE ONENARI

Ikusleek Sail Ofizialeko 16 film luzeen artean aukeratuko dute.

GAZTE EPAIMAHAIAREN SARIA FILM LABUR ONENARI

Epaimahai Gazte batek, 150 partaide inguruk osatutakoa, Film Labur Onenaren Saria ematen du urtero, 3.000 eurokoa.

AMNESTY INTERNATIONAL SARIA

Irabazlea Amnesty International erakundeko kideek eta ikus-entzunezkoen sektoreko profesionalak osatutako epaimahai batek erabakiko du.

GAIK ETA SOLASALDIAK

Zinemaren munduan eta giza eskubideen arloan lan egiten duten adituak Donostian izango dira egunotan eta aurkezpen eta solasaldietan parte hartuko dute ikusleekin batera. Aztertuko diren gaien inguruko hausnarketa bultzatzeko zinemaldiak hainbat testu argitara emango ditu bai bere webgunean (www.zinemaetagizaeskubideak.eus) bai paperean ere. Proiektzio aretoen sarreran bertan banatuko dira testuok. Hauexek izango dira XIV. edizioan jorratuko diren gaiak:

Solasaldia izango duten gaiak

- Emakume oroigarrien oroimenak (**Ama, nora goaz?**)
Iban Gonzalez (zuzendaria)
Lore Albizu (protagonista)
Joseba Esnal (Lore Albizuren semea eta oroimen historikoa aditua)
- Europa, populismotik muturreko eskuinera (**Boiling Point**)
Elina Hirvonen (zuzendaria)
Agustín Unzurrunzaga (Gipuzkoako SOS Arrazakeria taldeko sortzailea)
- AEB: abortatzea libre edo abortatzetik libre? (**Jackson**)
Rosa María Calaf (kazetaria, nazioarteko berriemailea eta feminista)
Arantza Campos (Plazandreok-eko feminista, UPV-EHU Berdintasuneko Masterraren zuzendaria eta Zuzenbide Fakultateko irakaslea)
- Transexualitatea adin txikikoen artean (**Just a Normal Person**)
Izaro Antxia (Gehituko transexualitate arloko arduraduna)
Aingeru Mayor (sexologoa eta Chrysalis Euskal Herria taldeko presidentea)
- Espekto autistaren nahasmendua (**Life, Animated**)
Gautenako (Gipuzkoako Autismo Elkarte) ordezkariak
- Zergatik eta zertarako egiten dugu lan? (**La mano invisible**)
David Macián (zuzendaria)
Josean Bengoetxea, Christen Joulin (aktoreak)
Maitane Arnoso (psikologoa eta UPV-EHUko Lanaren Psikologia irakaslea)
- Mexiko, narkotizatua (**Tempestad**)
Victoria Mendoza Salgado (mexikar aktibista, idazlea eta psikologo soziala)
- Indarkeria matxista Indian (**Anatomy of Violence**)
Deepa Mehta (zuzendaria)

Jorratuko diren beste gaiak

- Errepresioa eta zentsura artean
- Tradizioa berritzea
- Arabiar Udaberrien arrastoaren atzetik
- Korrupzioaren aurkako borroka, erronka bat Bulgariarentzat
- Hinduismoa, kastak eta tradizioa
- Uruguai, diktadura zibiko-militarra
- Ezkontza behartuak, Europan ere bai
- 26 urte *apartheid* gabe
- Kuba iraultzatik harago
- Neska-mutilak asilo burokraziaren aurrean
- Estraktibismoa eta turismoa “munduaren amaieran”

HAUR ETA GAZTETXOENTZAKO SAIOAK

Donostiako eskoletako ikasleek goizeko saioetara joateko aukera izango dute. Aurreko edizioetan bezala, helburu hezitzaile eta didaktikoak jarraituz programatzen dira saiook, giza eskubide urraketak ezagutzez gain, haiekiko sentiberatasuna areago dezaten haur eta gaztetxoek. Edizio honetan **4.500 ikasle** baino gehiago urbiduko dira Antzoki Zaharrera.

Filmetan agertzen diren baloreetan sakontzeko, proiektzioak **gida didaktikoekin** osatuko dira.

- Haurtzarora zaindu eta babestea
- **MA VIE DE COURGETTE** (2016). Suitza. Claude Barras
- Bizitzaren zentzua
- **PRINTZE TXIKIA** (*The Little Prince*, 2016). Frantzia. Mark Osborne
- Desberdinen arteko laguntasuna
- **TERESA ETA GALTZAGORRI** (2016). Euskadi. Agurtzane Intxaurreaga

ERAKUSKETAK

- **Emeek emana**
martxoak 23 – maiatzak 7
Aiete K. E.
Mauro Saravia, Intxorta 1937 Kultur Elkartea. Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin.
- **Giza eskubideen aldeko tira**
martxoak 15 – apirilak 23
Aiete Parke Kulturala
Fernando Buesa Fundazioa
- **Kolonbia, bake iheskorra**
martxoak 21 – apirilak 12
Udal Liburutegi Nagusia (Alderdi Eder)
Amnesty International
- **Artea eta giza eskubideak, haur eta gazteen XIII. ekitaldia**
martxoak 31 – apirilak 7 / apirilak 17-3
Zinemaldiaren Informazio Bulegoa (Victoria Eugenia Antzokia)
Donostiako Udaleko Giza Eskubideen arloa
- **Cuban Muslims, Tropical Faith (Joan Alvado)**
martxoak 16 – apirilak 25
FNAC
- **Waste Lands. Lur suntsituak**
martxoak 4 – maiatzak 21
San Telmo Museoa